

ZiberBullying-a

Teknologia berrien bidezko jazarpena
prebenitzeko **GIDA ARINA**



ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Zuzendaria: **Jorge Flores Fernández**
Egileak: **Jorge Flores Fernández, Manu Casal Lodeiro**
Diseinua: **Alfredo Requejo**
Animazioa eta Ilustrazioa: **Neco Animation**

Argitaratzailea:



www.ararteko.net
Tel.: 945 135 118

Materialaren jabea:



PantallasAmigas

www.pantallasamigas.net



www.edex.es

ISBN: 978-84-9726-465-5 • LG: BI-174-08
(c) 2008 PantallasAmigas, eskubide guztiak gordeta

PantallasAmigas EDEX eta Integral de Medios S.L. ren ekimena da. Helburua gazteen artean Interneten eta on-line erako teknologia berrien erabilera seguru eta osasungarria sustatzea da.

Aurkezpena

Nazio Batuek salatu dutenez, "Internetekin eta telefono mugikorrekina batera, ziberlarkeriaren kultura sortu da". (Umeen aurkako Indarkeriari buruzko Munduko Ikerketa, 2005).

Parekoen arteko indarkeria kontu larria da, eta, azken urteotan, profil berria hartu du: ziberbullying-a, teknologia berrien bidezko eraso.

Ez da badaezpadako gaia, kontuan hartuta zenbat hedatu den eta zelako ondorioak izan ditzakeen berau pairatzen dutenengan. Batez ere, Internet bitartez garatzen da, baina gero eta ohikoagoa da telefono mugikorraren edo on-line konexiodun bideokontsolen bitartez ere gitea.

Heziketa arloko erantzun honek bat egiten du Arartekoaren haurren babesari buruzko beste ekimen batzuekin, eta Parry Aftab Doktorearen ekarpenak jasotzen ditu. Izan ere, Parry Aftab aditu estatubatuarra PantallasAmigas-eko kolaboratzailea eta "Ziberbullying-a" gidaren egilea da.



(*) Aftab, Parry. Ziberbullying. Guraso eta irakasleentzako Gida Praktikoa. EDEX. Bilbao, 2007. (Liburu irudiduna)

Puntu orokorrak

Zer da ziberbullying-a?

Bitarteko telematikoak (Internet, telefonia mugikorra, on-line konektatutako bideojokoak...) erabiltzea da, parekoen arteko jazarpen psikologikoa egiteko. Albo batera geratzen dira eraso edo jazarpen sexualak eta pertsona helduen partaidetza duten kasuak.

Ziberbullying-ak badu zerikusirik bullying edo eskolako jazarpenarekin?

Modalitate bietan, parekoen arteko jazarpena gertatzen da, baina, kasu gehienetan, ez dute askoz antzekotasun gehiagorik izaten. Ziberbullying-ak beste arrazoi batzuk izaten ditu; modu ugaritan agertzen da eta berari aurre egiteko estrategiak eta ondorioak ere desberdinak izaten dira.

Sarritan gertatzen da bullying-aren ostean ziberbullying-a etortzen dela, eta, gutxiagotan bada ere, ziberbullying-ak bullying egoera ekartzen duela.





Zelan agertzen da ziberbullying-a?

Forma ugari hartzen ditu, eta muga bakarrak adin txikiko erasotzaileen gaitasun teknologikoa eta irudimena dira. Ikus ditzagun zenbait adibide zehatz:

- Interneten irudi konprometitu bat (benetakoa edo trukatua) edo datuak jartzea, baldin eta irudi edo datu horiek biktima kaltetu edo lotsarazi baldin badezakete; era berean, material hori biktimaren inguruan ezagutzera ematea.
- Pertsonarik itsusia, nazkagarriena... aukeratzeko erabiltzen den web gune batean inskribatzea biktima, argazki eta guzti. Ondoren, "boto" piloa ematea, lehenengo postuetan ager dadin.
- Biktimaren izenean, profil edo espazio faltsu bat sortzea, eta, han, biktimaren intimitateak konpartitzea, harreman sexualetarako eskaera esplizituak egitea eta abar.
- Foroetan iruzkin edo ohar iraingarriak uztea edo txatetan modu oldarkorrean parte hartzea, biktimaren lekuan jokatu. Modu horretan, foroan edo txatean jasotako kontrako iritziak biktimaren aurkakoak izango dira.
- Zenbait gunetan, erasotako pertsonaren helbide elektronikoa sartzea, zabor-posta edo mezu baztergarriak jaso ditzan, ezezagunekin harremanetan jar dadin eta abar.
- Posta elektronikoko pasahitza lapurtzea, postontzira heltzen zaizkion mezuak irakurtzeko. Modu horretan, biktimaren intimitatea urratzen da eta helbide elektronikoko horren benetako jabeak ezin du bertara sartu.
- Zaindaria edo moderatzailea duten web zerbitzuetan (txatak, on-line jokoak, komunitate birtualak...), biktima probokatzea, haren erreakzio zakarra lortzeko, eta, behin erreakzio hori salatuta, biktima hutsa den pertsona hori zerbitzutik botatzeko.
- Biktimaren ustezko portaera gaitzesgarri, iraingarri edo desleialari buruzko zurrumurruak sortzea. Modu horretan, beste pertsona batzuek, irakurtzen ari direna zalantzan jarri gabe, errepresalia edo eraso ekintzak egingo dituzte biktimaren aurka.
- Mehatxuzko mezuak bidaltzea posta elektronikoz edo SMS bidez.
- Biktimak erabili ohi dituen Interneteko lekuetan, haren aurkako jazarpena eta behaketa egitea, estresa sorraraziz.

Ziberbullying-a: haziz doan fenomenoa

Aukera handia

Teknologia berriak (Internet, mugikorra...) gero eta ohikoagoak dira adin txikikoekin bizitzan. Ondorioz, jazarpena edozein leku eta unetan egin daiteke, eta abusatzaileak eta biktimak ez dute zertan leku eta une berean egon.

Gero eta garrantzi handiagoa

“Ziberespazioak” gero eta indar handiagoa dauka gure haurrak gizarteratzeko unean. Hori dela eta, “mundu” horretako jazarpen bat oso traumatikoa izatera hel daiteke, ikastetxean bertan gertatutako eraso bat baino traumatikoagoa.

Egindako kaltearen pertzepzio txikiagoa

Erasoa modu tradizionalen egiten denean, biktimak eta erasotzaileak elkar ezagutzen dute, hurbil edo aurrez aurre ere egon daitezke, eta, beraz, abusatzaileak eta lekukoek zuzen-zuzenean ikus ditzakete erasoaren ondorioak. Ziberbullying kasuetan, hori ez da horrela izaten, eta, ondorioz, nekez arinduko da erasorako jarrera, edo lekukoek nekez jardungo dute biktima defendatzen.

Hautagai kopuru handiagoa

Biktimak ez du zertan ikaskidea edo auzokidea izan. Internet, mugikor edo bideojokoen bidez ezagututako edozein pertsona izan daiteke. Abusatzaileak ez du zertan indartsua edo ausarta izan, eta ez du taldearen oniritziarik edo beste inoren babesik behar. Testuinguru honek baldintza gutxi jartzen dizkie parte-hartzaileei, eta aukerak asko dira.

Zigorgabetasun sententzia

Ordenagailuaren edo mugikorraren atzean ezkutatuta dagoelarik, erasotzaileak anonimatuan egotearen sententzia dauka, eta hori ez da guztiz egia. Gainera, nor den deskubritu arren, ez da ohikoa berak ondorioak pairatu behar izatea, ez biktimaren aldetik, ez adiskide, lagun, eskolako arduradun edo gurasoen aldetik.

Rol eta jokaera onartuak hartzea

Sarritan, jazarpena jolas bezala agertzen da, eta erasotzailea ez da konturatzen zelako kaltea egiten ari den. Beste batzuetan, bere buruari galdetu ere ez dio egiten bere ekintzak zelako ondorioak izan ditzakeen, Sarean interpretatutako rol edo pertsonaia baten jokaera hartu duelako. Hori horrela, zailagoa da erasotzaileak bere rola onartu eta albo batera uztea.

Interneten ezaugarri aproposak

Erasotzaileak, ezagunak izan edo ez, erraz taldekatzen dira; arin eska dakieke laguntza, eta ikus-entzunezko edukiak modu erosoan erreproduzitu eta bana daitezke. Faktore horiek, zenbait kasutan, funtsezkoak dira zibereraso egoera bat sortzeko edo finkatzeko.

Erabilerarako baimenak galtzeari beldurra

Sarritan, erasoa jasandakoek ez dute laguntzarik eskatzen, beldur direlako, “arazoetan sartuta” daudela onartzean, Internet, telefono mugikor edo bideojokoen erabilera mugatu edo kendu egingo ote dieten.

Adin txikikoentzako aholkuak

- Oso kontuz ibili datu pertsonalekin: izena, telefonoa, helbidea, argazkiak, ikastetxea... Ez itzazu eman. Besteek zuri buruz zenbat eta gutxiago jakin, hobeto. Pentsatu zer idatziko duzun txat edo areto pribatuetan; izan ere, idatzitako hori pistak izan daitezke, eta jendeak zure datuak lor ditzake bertatik. Erabili beti izengoitia eta izen asmatuak.
- Jarri arreta berezia netiketari (Interneteko jokabide arauak, zelan agurtu, emotikonoak erabiltzea animo-egoerak adierazteko, maiuskulaz ez idaztea...). Gainera, kontuan izan behar da solaskideek beste kultura bat edo beste testuinguru sozial bat izan dezaketela, edo gure hitzak txarto interpreta ditzaketela. Gaizki ulertu bat sortuz gero, saia zaitez adeitasunez argitzen.
- Sekula ez diozu probokazio bati erantzun behar, are gutxiago haserre bizian bazaude. Hobe da lehenago lasaitzea. Hamar arte zenbatzea ez bada nahikoa, egin apur bat entretenituko zaituen zerbait, berriz ere ordenagailuaren aurrean jesarri aurretik. Erantzutea da ziberabusatzaileari eman diezaiokezun pozik handiena, eta arazoa handitu baino ez duzu egingo, modu horretan jokatuta.
- Mehatxuak edo jazarpenak bere horretan jarraitzen badu, gertatutakoaren frogak gordetzea komeni da (legezko baliorik izan ez arren, gorde edo inprimatu mezua edo pantailan agertzen dena); itxi konexioa eta eskatu laguntza pertsona heldu bati.
- Zuri buruzko on-line informazioak argitaratu ote dituzten zalantzan bazaude, Google bilatzailea erabil dezakezu zure datuak bilatzeko (izena, ezizena...), eta Sarean zuri buruzko erreferentziarik ba ote dagoen ikusteko.

Pertsona helduentzako aholkuak

- Adin txikikoei konfiantza nahikoa eman behar zaie, laguntza eska diezazuten.
- Ez jokatu zakar, horrela ez dira-eta gauzak konponduko. Lehenengo, babestu adin txikikoa, haren larritasuna arintzeko. Gero, helduko da ekintzak hasteko unea.
- Egon adi erasoaren larritasunari eta maiztasunari, bere benetako neurria hartzeko. Zuzeneko kalte fisikoko mehatxu larriak egiten direnean, gaia oso serio hartu behar da, batez ere baldin badakigu erasotzaileak adin txikikoari buruzko informazio zehatza duela (esate baterako, bere etxeko helbidearen edo ikastetxearen berri). Poliziarengana jotzea ere ez dago sobera, honelako kasuetan.



CD-ROMaren erabilerari buruzko orientazioak

ELEMENTUAK

CD-ROM hau adin txikikoentzat egina da, eta erakargarria eta dibertigarria izateko asmoz prestatu da. Istorio animatu bat eta joko bi ditu:

Istorio animatua: "Ziberbanpiro abusatzailea"

Erasotzailea deskuidurik txikienean erasotzeko prest dago. Van Tekling banpiro-ehiztari ospetsuak egingo du gaiari buruzko sarrera, eta "ziberbanpiro abusatzailearen" biktima izandako neska-mutikoen kasuak aipatuko ditu. Ondoren, benetan gertatutako lau istorio agertzen dira, non protagonistek arduragabekeriaren bat egiten duten. Zein akats egin zuten asmatu behar da.




Jokoa: "Erantzun egokia"

Jolasak mugikor bidezko mezuen bidalketa simulatzen du. Zenbait SMS jasotzen dira, eta erantzun egin behar dira. Horretarako, dauden erantzunen artean bat aukeratu beharko da. Erantzun hori erasoak saihesteko egokia den ala ez, aldatu egingo da abusatzailearen eta eraso jasandakoaren (jokalaria) itxura.



Jokoa: "Abentura ziberespazioan"

"Ziberalienak" ziberbullying-a gertatzen den lekuetan agertuko dira: Internet, telefono mugikor edo on-line jokoetan, hain zuzen. Ziberalienak aipatutako eszenatoki horietan aurkitu eta neutralizatu beharko dira, borroka eginez. Emaitza gure aldekoa izango da, baldin eta erantzun egokia ematen badiegu galderi.



ERABILERA KO IRADOKIZUNAK

CD-ROM hau ikustean, adin txikikoarekin egotea komeni da, gutxienez lehen aldia. Modu horretan, komunikazio elektronikoen segurtasun arauari buruzko elkarrikketa sortu ahal izango da.